

## Gonbidatua

### *Gogoetatxo bat, Gizarte-lanetik emandako arreta soziosanitarioari buruz*


*Emakumearen Osasunaren Taldeko eta Ortuellako Osasun Mentaleko Zentroko lankideei eskainia, asko ikasi baitnuen haiekin.*

Urteotan bata bestearen atzetik bizitzen eta jasaten ari garen krisiek (ekonomikoa, finantzariora, lanekoa, belikoa ere bai gaur egun,...), eta haiek utzitako ondorioek (desberdintasunen areagotzea, ezinegona, genero-arrakala, gaixotasun fisiko eta mentalak, pobrezia gogorra, bazterkeria-arriskua, gabezia material eta sozialak, inflazioa...) zaugarritasun-egoera larrian utzi dituzte biztanleriako sektore handiak, bereziki -baina ez bakarrik- behartsuenak, arreta soziosanitarioaren beharrean direla.

Pertsona horiek ez dute eskatzen, ez hainbeste behintzat, prestazioetan oinarritzen den arreta, baizik eta arreta eta entzute modu bat zeinak lagunduko diena beren bizitzan berriro kokatzen, beren asmoak identifikatzen, beren burua eta besteak zaintzen eta beren beharrak asetzen: **erabakiak hartzen eta beren bizitzaren kontrola edukitzen**. Hala definitu zuen *osasuna* OMEK, Osasuna Sustatzeko Ottawako Konferentzian (1986).

Erronka bat da hori arreta soziosanitarioarentzat, gaur egun ulertzen den moduan, behintzat. Horri aurre egiteko, **persona bere egoeran** zentratzen duen gizarte-lanaren paradigmatic beharrezkoa litzateke, nire ustez:

1. Arreta soziosanitarioaren kontzeptua zabaltea: lehen mailako arreta osoa integratu beharko luke, sanitarioa eta soziala; guztiontzat identifikatzen erraza eta eskuragarria izan beharko luke, eta bere gain hartu beharko litzuzke sustapena eta prebentzioa ere, asistentziaz gain.
2. Diziplina anitzeko talde mistoak sortzea, edo baleude, zabaltea; alegia, talde sanitarioak (mediku, erizain, gizarte-langile sanitario, ...) eta gizarte-zerbitzukoak (gizarte-langileak, gizarte-hezitzaileak, ...) elkarlanean aritzeko (diziplinartekoa), eta diziplinatik haragoko planteamendu zabala dutela, artatzen dituztenen egoera osoaren ikuspegia edukitzen laguntzeko, eta, arreta hori emate aldera, sinergiak sortzeko.
3. Argi izatea esku-hartzearen helburu nagusia pertsonari laguntzea dela; zaugarritasun-egoera gaindi dezaten, zer nahi duten erabakitzeko gaitasuna berreskura dezaten, eta beren buruaren gaineko erabakiak har ditzaten. Horrek haien duintasuna eta autonomia onartzea dakar, eta ez usurpatzea, gure "*jakituria tekniko gorena*"ren izenean, haiek duten eskubidea subjektiboki onar dezaketen laguntzaren forma eta ezaugarriak zehazteko, edota prozesuaren denborak eta amaiera adierazteko, edo jarraitzea edo aldaketak egitea nahi duten erabakitzeko.



Utopia, edo aukera?

**Amaya Ituarte**

Gizarte-langile, irakasle, ikuskatzaile eta egilea

## Albistekak



### Zaintzaile diren hiriak

[Gehiago irakurri...](#)



### Arrakala digitala eta bazterketaren arriskua osasunerako eta zainketetarako

[Gehiago irakurri...](#)



### Atxikidura, bizitzan zehar osasunean lortzen diren emaitzen funtsezko faktorea

[Gehiago irakurri...](#)



### Gizarte-zerbitzuetako profesionalentzako gida azkarra zaintzaile ez-profesionalei arreta emateko

[Gehiago irakurri...](#)

## Albistekak



**Osasun-datuen gobernantza eta beste datuekin integratzea. Herbeheretako kasua**

[Gehiago irakurri...](#)



**Prebentzioa zahartzen ari den mundu batean**

[Gehiago irakurri...](#)



**Etxea deitu ahal zaion toki bat 65 urtetik gorakoentzako laguntzak eta zaintzak dituzten bizitegi-aukerak**

[Gehiago irakurri...](#)



**Desgaitasun organikoa, desgaitasun ikusezina**

[Gehiago irakurri...](#)

## Albisteak



### Gaixotasun neurologikoa eta gizartelana

[Gehiago irakurri...](#)



### Iraupen luzeko zainketak Europan

[Gehiago irakurri...](#)



### Funtsezko ikaskuntzak COVID-19 pandemiaren ondoren osasun-sistemak berreskuratzeko

[Gehiago irakurri...](#)



### Herrialde nordikoetako aurrekontu pertsonala, desgaitasunen bat duten pertsonen zerbitzurako laguntza?

[Gehiago irakurri...](#)

## Albisteak



### Osasunaren gizarte-baldintzatzaileak: bizitza eta heriotza kontua

[Gehiago irakurri...](#)

#### Editore Taldea

Lucía Iñigo, Aitor Lopez de Aberasturi, Miren Luzarraga, Blanca Oleaga eta Catarina Paz Camaño

Datu Pertsonalak Babesteko 2016/679 Araudi Orokorrean xedatutakoa betez, argitalpen hau bidaltzeko zein beste argitalpen batzuen berri emateko zure baimena eman diguzu.

Buletina jasotzen jarraitu nahi ez baduzu, **baja hemen** eman dezakezu [dirdsaludsociosan@euskadi.eus](mailto:dirdsaludsociosan@euskadi.eus) helbidera idatzi ezker. Halaber, dagozkizun eskubideak erabiltzeko helbide honetara jo dezakezu: Eusko Jaurlaritza, Arreta Soziosanitarioa, Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz.

Informazio honetara iritsi zara eta interesgarria iruditu zaizu? **Buletin hau ere jaso eta Arreta Soziosanitarioari buruzko informazioarekin egunean izatea nahi duzu?** Gure webgunean **alta eman dezakezu** esteka honen bidez: <http://www.euskadi.eus/sociosanitario/-/informacion/suscripcion-boletin-atencion-sociosanitaria/>